


La-Steps enpresa, leinnerak sortutako enpresak pintura muralistak eskainiz komunikabideen atentzioa lortu du.

2014/01/14

La-Steps pintura muralista zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa da. Muralismoaren bitartez kale eta inguruak sormenez bilakatzea proposatzen dute. Spray-a bitartekari izanik ez dira identifikatzen "tagging" edo graffiti suntsizailearekin. Alderantziz, marrazki figuratibo edo abstraktuen bidez konnotazio negatiboak dituen mugimendu bati buelta ematen ahalegintzen dira, lan konstruktiboa beraien balio bilakatuz ingurua sormenez eta energiagaz betetzeko.

Etorkizuneko generazioak graffiti sozial eta artistikoaren ikuspuntu konstruktibo honekin hezitzearen balioa ikusten dute. Horrez gain, marketing aukera berri bat proposatzen diete enpresei heuren pertsona edo paretetan mural bat sortuz, pintadak jasatearen aukerak murriztuz, gainera. Edozein gainazalean dira pintatzeko gai; denden pertsona edo paretetan (bai barnealde zein kanpoaldeetan), nahiz bakoitzaren etxeko hormetan. Behean duzue ETBk grabatutako bideoa beraien inguruan.



grafiteroak cast from [Inigo Arrieta](#) on [Vimeo](#).

